

Ondoren agertzen diren bi taula hauetan gure zerbitzua aurrera eramateko beharrezkoak ditugun elkarteak agertzen dira. Hauek, bi mailatan sailkatu ditugu. Alde batetik funtsezkoak, ezinbestekoak direnak. Bestetik, bigarren mailakoak, ez direnak hain garrantzitsuak baina gure proiektua bideratzeko baliagarriak direnak edota laguntzazkoak izango direnak aurrerago.

- FUNTSEZKOAK:

ELKARTEA	DESKRIBAPENA	HARREMANA
Administrazio publikoa	Udaletxea: Galdakaoko Udala Bizkaiko Foru Aldundia: Bere gain hartzen ditu Bizkaiko gobernua eta Eusko jaurlaritzaren. Gobernua: Eusko jaurlaritzaren	-Diru laguntzak jasotzeko (Bizkaiko Foru Aldundia) -segurua eta arriskuak kudeatzeko, diru laguntzak jasotzeko eskaerak egiteko... -Beste ospitale publikoetan proiektua martxan jartzeko.. Udal zerbitzuak
Osakidetza	Galdakaoko Ospitale Publikoa.	Gure proiektua Galdakaoko Ospitale Publikoan ezartzea erabaki dugunez, bertako zuzendaritzarekin harremanak ezarri. Proiektua aurrera joanez gero, bertako langileekin etengabeko komunikazioa.
Hornitzaileak	- Ikea : materialak, altzariak - Ikcplay : jolas interaktiboak, material ergonomikoak, mahaiak, bankuak, sillak... - Infanity : interaktiboak, material ergonomikoak, mahaiak, bankuak, sillak...	Materiala lortzeko edo eskuratzeko hainbat denda edo enpresekin elkartu. Psikomotrizitaterako materialak, higienerako, siestarako oheak...

- BIGARREN MAILAKOAK

ELKARTEA	DESKRIBAPENA	HARREMANA
Ospitale ezberdinak	Basurto, Cruces, ospitale pribatuak...	Galdakaoko ospitalean gure zerbitzuak ondo funtzionatzeko badu eta hedatzeko prest gaudenean, beste ospitale batzuekin harremanetan jarriko gara.
Ikastolen Elkartea	Bizkaiko ikastolak	Ikastolen Elkartearekin itzarmen bat sortuko dugu. Ikastolaren batean lhaurren bat gaixorik jartzen bada eta gu gauden ospitalean ingresatu behar badute, Osplay zerbitzua

		erabiltzeko aukera Horren truke, beraien aldetik material desberdina edo aholkularitza jaso genitzake
Arkitektu/ Diseinatzailea	---	Alde batetik, gure beharrak eta bestetik, haurren segurtasuna bermatzeko, espazioen diseinatzaile batekin harremanetan jarriko gara diseinu egokia ezartzeko
Gazte edo pertsona boluntarioak	Ipuin Kontaketak Tailer desberdinak Jolas ezberdinak prestatu	Ekintza desberdinak egiteko espazioa eskeintzen dugu hurrekin egoteko. Oso esperientzia ona izan daiteke, haur hezkuntza ikasten dabilzaten ikasleentzako edota praktiketan dabilzatenentzako. Ariketa edo dinamika desberdinak prestatu ahal dituzte eta gure espaziora ekarri hurrei zerbait desberdina eskeintzeko. Honekin, guri laguntza ematen digute eta haiek esperientzia lortzen dute.
Psikologoak	Ospitaleko psikologo talde edo psikologo elkarte batekin	Izan daiteke paziente baten haur, iloba edota lehengusua, bertara datorrela eta egun batzuk eman behar dituela bertan, pazientearen egoera okerrera doalako. Gu bertan gaude, baina arlo guztietan ezin gara murgildu, horregatik psikologoena oso ondo datorkigu, haiekin informazioa partekatu dezakegu haurren egoera horiei aurre egiteko, eta hurrei bizipen eta esperientzia onenak eskeintzeko.
Janaria eskeintzen duen elkarte (Elikadura hornitzaileak)	Guraso talde/ janari elkarte	Hurrekin gaudenez, ezinbestekoa da elikagai onenak hartzea batez ere haien osasunerako. Horregatik, katerin on bat eskeintzea oso garrantzitsua da guretzako. Bestalde, janari ugaria eta osasuntsua izatea garrantzitsua da ere bai, beganoren bat edota alergiaren bat izatekotan, aukera guztiak eskeintzeko.
Diseinatzaile Grafikoa	Gutako batek honi buruzko kurtsoa jasoko du	Proiektuaren publizitatea egiteko baliogarria egingo zaigu.